XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

3981

AGINDUA, 2012ko abuztuaren 30ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko xedapen gehigarrietatik laugarrenak zehazten duenez «Lege honetan ohartemandako zenbatekoak lehenagotik zehaztutako pezeta-kopuruei buruzkoak dira». Bada, Ogasun Sailari dagokio zenbateko horiek eguneratzea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan, ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzioaren arabera.

Bestalde, eta egoera berezi gisa hartuta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 151. artikuluaren 3. atalean xedatzen denez, ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzio berriaren arabera, hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza publikoa ematea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan eguneratuko da.

Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egin denez, aurreko paragrafoetan jasotzen den legezko manua bete egin behar da.

Azaldutakoa kontuan izanik, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Hauteskundeetako gastuei buruzko dirulaguntza publikoak izanik, horrela geratzen dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 151. artikuluan jasotako zenbatekoak:

1.– 1. atalaren a) letrari dagokiona: hogeita sei mila zazpiehun eta hirurogeita bat euro eta laurogeita bederatzi zentimo (26.761,89).

2.– 1. atalaren b) letrari dagokiona: laurogeita hamar zentimo (0,90).

3.– 1. atalaren c) letrari dagokiona: berrogeita lau mila seiehun eta hiru euro eta hamahiru zentimo (44.603,13).

4.– 2. atalaren a) letrari dagokiona: hogeita hiru zentimo (0,23).

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan jaso ez eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako beste zenbateko guztiek, ehuneko ehun eta bat koma hogeita hamahiruko igoera izango dute (% 101,33).

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 30a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.